

BATZORDEBURUA  
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko MAIATZAREN 22an EGINIKO  
OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria  
Esterban Hernando  
Aitziber Alava  
Garbiñe Alaña  
Julio Etxaurren  
Esmeralda Martínez  
José Antonio Bartolomé  
Iratxe Parro  
Iraida Saenz de Lafuente  
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita bii, hemeretziak direnean, Udabatzara Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udabatzara ongietorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko apirilaren 16an eginiko Ohiko Bilkuraren akta.**

Iratxe andreak (AB) esan du berak apirilaren 16ko bileran “eskaerak eta galderak” atalean aipatu zuela ez dela zehatz-mehatz jaso. Adierazi du ez dela jasota geratu aktan gauean igorri zen mezu elektronikoaren inguruan hitz egin zena, ezta Aiara Batuz taldeak EAJren jarduteko modua lardaskeria hutsa iruditu zitzaigula ere, zezenak zerrara igortzearen inguruan iritzia aldatzean. Era berean -adierazi du-, ez da jasotzen abeltzain guztiei gutun bat bidaltzeko egin genuen eskaera, hain zuzen ere, hitz egindakoa azaltzeko, ez uzteko ordezkarien esku abeltzainei informazio hori helaraztea.

Idazkariak adierazi du, araudiarekin bat etorritik, aktetan jaso egin behar dela talde bakoitzak agertutako iritzien adierazpen labur eta zehatza, bozketak eta hartutako erabakiak. Beraz, idazkaritza honetan ez da jasotzen osoko bilkura guztietan hitz egiten den guztiari buruzko hitzeko hitzeko idazketa.

Garbiñe andreak (EAJ) eta Josu jaunak (BILDU) idazkariak idatzitako akta bozka dadila nahi dute, aurkeztu den bezalaxe.

AB taldeak akta honen aurka bozkatu du, ez duelako jasotzen aipatu osoko bilkuran esandako guztia.

Gainerako taldeek (BILDU, EAJ eta PP) akta horren aldeko botoa eman dute, eta aho batez onetsi da.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Infoaiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkartearen, 2014 lankidetzaren hitzarmena.**

Ez denez gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin denez, Udabatzara Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSITA.-** Udalak interesa du udalerrian euskaraz komunikatzea sustatzean.

**IKUSITA.-** Info Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarteak, besteak beste, euskaraz dagoen [www.aiaraldea.com](http://www.aiaraldea.com) web orria sustatzea eta sostengua ematea du xede, eta, horren bidez, hizkuntza normalizazioa bultzatzen da. Aiara udalerria horren guztiaren onuradun da.

**IKUSITA.-** Aiarako Udala eta Info Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarteak lankidetzan aritzeko 2014 ekitaldiko hitzarmena, tokiko euskarazko hedabideak suspertu eta finantzatzea helburua duena.

**IKUSITA.-** Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman zuen 2014ko apirilaren 13ko bilkuran.

**AINTZAT HARTUTA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak Info Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa egotea eskatzen du, hitzarmena sinatzeak Udalari dakarkion gastua bere gain hartze aldera.

Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udala eta Info Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarteak lankidetzan aritzeko 2014 ekitaldiko hitzarmena, tokiko euskarazko hedabideak suspertu eta finantzatzea helburua duena.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

**Laugarrena.-** Hitzarmena sinatutakoan, Info Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarteari jakinaraztea eta horren bi ale helaraztea, sina ditzan eta geroago Udalari horietako bat itzul diezaion.

- Eguneko aztergaien zerrendako puntu hauekin jarraitu baino lehen, alkateak **Eguneko Aztergaien Zerrendatik Kanpo** aurkeztu du mozio hau, eta premiazko izapidearen bidez sartzea proposatu du. Honako hau dio, hitzez hitz:

**“L. B. G.-k (NAN zk.: -) eta I. A. G.-k (NAN zk.: \*), Patxo Murga eta Pablo Gorostiaga Kalera plataformaren izenean eta horien ordezkari gisa, honako mozio hau aurkeztu diote Aiarako Udalari, aztertu eta oneste aldera:**

*2013ko azaroaren 21ean Pablok 73 urte bete zituen. Patxok uztailaren 11n beteko ditu. Oraindik kartzelan egotea arautzen duen Espainiako espetze legeriak ezartzen du behin 70 urte beteta, kartzelaratuari 92. artikulua ezar dakiekeela. Horren bidez, gaixotasun sendaezinak dituzten preso gisa edo jada euren zigorraren 3/4 bete dituzten preso gisa hartuko dira. Premisa hori dela eta, biek dute askatasuna eskatzeko eskubidea, eta halaxe egin zuten. Hala ere, ez da aldeko erantzunik egon.*

*Pablok 7 urteko eta 8 hilabeteko zigorra jaso zuen eta Patxok 8 urtekoa, delitu politiko eminenteatatik, zehazki, erakunde armatuari laguntzea leporatuta, EGIN egunkaria bultzatzeatikat. Zigor hori garai hartan lehendakari zen Ibarretxe edo Patxi Lopez bera Batasunarekin zenbait bilera egitearen ondorioz erakunde armatuari ustez emandako laguntzatatik Espainiako justiziara eraman zituzteneko testuinguruaren baitan kokatu behar dugu.*

*Pablo eta Patxo akusatua izan ziren 18/98 sumarioko epaiketa eta ondoren Auzitegi Nagusiak eta Konstituzionalak eginiko berrikuspena 2007an su-etena hautsi eta berehala egin ziren, eta egoera politiko eta sozial horren ondorio izan ziren. Zorionez, garai hartatik hurbil dagoen epean, sumario horietako batzuetan, besteak beste, EGUNKARIA egunkariari, UDALBILTZA udal-hautetsien elkarteari edo D3M hauteskunde-taldeari dagokienetan, akusatua absolbitu egin dituzte, euskal gizartearen iritzi publiko handienaren poztasunerako.*

*Baina Pabloren eta Patxoren kasuan, Espainiako bide judiziala euskaldunontzat zaila zen garai politiko batean agortu zen, eta orain ez dago Estrasburgoko erantzuna itzarotea beste aukerarik. Baina erantzuna iristen denerako, Pablok eta Patxok jada euren zigorrak beteta izango dituzte. Biek daramate bost urte baino gehiago kartzelan. Erailketak eta torturak bezalako delitu askoz ere larriagoak tarteko zigortutako beste pertsona batzuek bi urte ere ez zituzten bete kartzelan. Uste dugu 70 urte bete zituztenetik igaro den denbora nahikoa izan dela kartzelatik ateratzeko egindako eskaera izapidetu eta onesteko, eta, beraz, eskumeneko agintariei exijitzen diegu berehala egin dezatela. Bestela, mendekuzko neurritzat edo neurri ankertzat baino ezin da hartu, sistema demokratiko batean inpropioa.*

*Guztiok ados gaude bost urte baino gehiagoko epe hori, hirurogeita hamar bete dituzten pertsona batzuentzat, pertsoneri edo ondasuneri eginiko inolako erasorekin zerikusirik ez duten delituak leporatuta izanik, gehiegizkoak direla gorrotoaz eta mendekuaz itsututa ez dagoen edozein behatzaile inpartzialentzat.*

*Hori dela eta, Aiarako Udalak honako erabaki hau hartu du:*

- 1.- Berariaz kondenatzea 73 urteko bi pertsona kartzelan egotea bertan bost urte baino gehiago eman ondoren.*
- 2.- Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga kartzelatik ateratzeko eskatzea.*
- 3.- Idazki honetan adierazitako gertaerak adierazten eta salatzen dituen edozein ekimenekin bat egitea.*
- 4.- Elkartasuna agertzea Pablarekin eta Patxorekin zein euren familiarekin, eurekin bidegabeki jokutzen ari direlako."*

Josu jaunak (BILDU) esan du premiazkoa dela ekimen hori sustatzen duen plataformak aurreikusita delako horren inguruko ekintza bat egitea Laudion maiatzaren 30ean. Hori dela eta, interesgarria da Udalbatzak gure babesa agertzea mozio hau onetsiz eta ekitaldira bertaraturaz; izan ere, ekitaldi horren xedea da eskualdeko alkateek onespena ematea. Josu jaunak jarraitzeko esan du mozioa nahikoa argia dela, horrenbeste urte dituzten pertsona horiek kartzelan daudelako, baina ondoren eginiko prozesuetan auziperatuak absolbituta geratu direla.

Hori dela eta, bozkatu egin da mozio hau eguneko aztergaien zerrendan sartzea, eta honako hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 10 (4 BILDU, 4 EAJ, 2 PP)

Abstentzioak: 1 PP

Horrenbestez, premiazkotasuna onetsi da, eta, beraz, mozioa eztabaidatzera eta bozkatzera pasatuko da.

Garbiñe andreak (EAJ) proposatu du lehen puntua, hau da, “bi pertsonak” ezabatzea, eta honela uztea: "espresuki kondenatzea pertsonek...”

Era berean, 5. puntua sartu dute, eta honako hau dio:

*5.- Mozio honen berri ematea Espetxeei, Euskal Autonomi Erkidegoan dagoen Gobernuaren Ordezkaritzari eta mozioa proposatu duen Plataformari.*

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta bozketa egin da. Honako hau da emaitza:

Aldeko botoak: 8 (4 BILDU, 4 EAJ)

Abstentzioak: 3 (2 AB, 1 PP)

### **3.- Alkatetza Dekretuak:**

- **Erref.-154/14.- ARAN SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES S.C.-** Ehiza Antolamenduaren Plan Teknikoa egiteko kontratu txikia esleitzea.
- **Erref.- 155/14.- G.C.A.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzan dagoen etxebizitzako estalkia teilaberritzeko.
- **Erref.- 156/14.- Bitarteko funtzionario bat izendatzea, zerbitzu anitzetako beharginaren aitatasun-baimena estaltzeko.**
- **Erref.—157/14.- Urruela, SC.-** Arespalditzako abeltzaintza-pabiloian obra txikiak amaitzeko luzapena esleitzea.
- **Erref.- 158/14.- Hdos. De SMI.-** Menoion dagoen lursail batean horma bat konpontzeko obrak amaitzeko luzapena esleitzea.
- **Erref.- 159/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Izorian dauden lursailtako bi ur-biltegiatan atea eta leihoak zementuzko blokeekin ixteko obrak amaitzeko luzapena esleitzea.
- **Erref.—160/14.- E.R.G. eta G.A.A.-** Retes de Llanteno herrian dauden familia bakarreko etxebizitzan erreforma egiteko obrak amaitzeko luzapena esleitzea.
- **Erref.-161/14.- Onestea F/2014/3 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 162/14.- V.N.E.-** Sojoko bi nekazaritza-pabiloietako teilatuak konpontzeko obretarako lizentziari buruzko espedientea amaitutzat ematea.
- **Erref.- 163/14.- I.S.J.-** Ozekan dagoen etxebizitzari lehenengoz okupatzeko lizentzia esleitzea.
- **Erref.- 164/14.- Zuazako Administrazio Batzarra.-** Zuazako La Madalena bidean azaleko urak jasotzeko sarea kanalizatzeko eta hobetzeko obrarako lizentzia esleitzea.
- **Erref.- 165/14.- Kreditu gehigarrien 2/2014 espedientea.**
- **Erref.- 166/14.- Hnas. I. V., S.C.-** Dokumentu gehiago eskatzeko, Menoioko abeltzaintza pabiloia eraikitzeko obrarako lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 167/14.- Talleres Banoa, SL-** Dokumentu gehiago eskatzeko, Jarduteko Lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 168/14.- I.C.A.-** Menagarai herrian dagoen familia bakarreko etxebizitzari lehenengoz okupatzeko lizentzia esleitzea.

- **Erref.- 169/14.- P.C.A.-** Menagarai herrian dagoen familia bakarreko etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia esleitzea.
- **Erref.- 170/14.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia esleitzea Arespalditzako La Iglesia auzoko 13. eta 15. zenbakiko eraikineko estalkian eltxoen aurka babesteko sarea jartzeko.
- **Erref.- 171/14.- Hogeitalau Euskara Elkarte.-** Justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzea euskara sustatzeko gastuetarako.
- **Erref.- 172/14.-** Arabako Foru Aldundiari diru-laguntza eskatzea, San Isidro 2014 azoka antolatzeke.
- **Erref.- 173/14.- Quesería Izoria, SL.-** Irekitzeko lizentziari buruz dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 174/14.- AXPO IBERIA, SL-** 2014ko lehen hiruhilekoan jabari publikoko okupazioagatiko tasa-likidazioa.
- **Erref.- 175/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** 2014ko lehen hiruhilekoan gas kontzeptuan lurra okupatzeagatiko tasa-likidazioa.
- **Erref.- 176/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU-** 2014ko lehen hiruhilekoan argindar kontzeptuan lurra okupatzeagatiko tasa-likidazioa.
- **Erref.—177/14.- Naturgas Energía Distribución, SAU-** 2014ko lehen hiruhilekoan lurra okupatzeagatiko tasa-likidazioa.
- **Erref.- 178/14.- R.V.M. eta J.A.B.-** Aurkeztutako uko egitea onartzea, eskuz eginiko ogiarentzako labe bat eraikitzeke obrarako lizentzia esleitzeko.
- **Erref.- 170/14.- L.M.G.-** Sojon dagoen lursailean berotegi bat instalatzeko udal-lizentzia esleitzea.
- **Erref.- 180/14.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** 2013an zehar mediku-kontsultarako argiteria publikoaren eta gasolioaren % 50eko diru-laguntza esleitzea.
- **Erref.- 181/14.- Aiarako Administrazio Batza.-** 2013an mediku-kontsultarako argiteria publikoaren % 50eko diru-laguntza esleitzea.
- **Erref.- 182/14.-F.R.R.-** Menagaraiko lursailean familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeke obrarako udal-lizentzia esleitzea.
- **Erref.- 183/14.- Etxegoingo Administrazio Batza.-** 2013an zehar mediku-kontsultarako argiteria publikoaren % 50eko diru-laguntza esleitzea.
- **Erref.- 184/14.- Hnas. Ibarrola Villanueva, S.C.-** Dokumentu gehiago eskatzea, jarduera-lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 185/14.- Hnos. A. G., C.B.-** Dokumentu gehiago eskatzea, jarduera eta irekitzeko lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.-186/14.-** Onestea F/2014/4 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref. 187/14.- R.V.M eta J.A.B.-** Zuazan txabola berritzeko obrako hondakinak behar bezala kudeatzeko fidantza eskatzea.
- **Erref.—188/14.- Aldi baterako langileak kontratatzea.**

Iratxe andreak (AB) adierazi du hainbat dekretu daudela abeltzaintza-sektorearekin lotuta, eta martxoan dekretu bat argitaratu zela nekazari eta abeltzain gazteentzako laguntzei buruz, ustiapenak legalizatzeko hainbat diru-laguntza lerroekin. Horri dagokionez, galdetu du ea jakina den norbaitek diru-laguntza hori galdu duen ustiapenerako lizentziak emanda ez izateagatik.

Bai alkateak, bai idazkariak, horren inguruko berririk ez dutela esan dute.

#### **4.- Eskaerak eta galderak.**

- José Luis jaunak (PP) galdetu du ea zer pasatzen den Espainiako banderarekin, aspalditik ez baitago balkoian.

Josu jaunak (BILDU) erantzun dio zegoen lekutik desagertu zela. Ez dakite nola. Pentsatzen dute berriro desagertuko dela, baina, nahiz eta bandera jartzea gehiengoaren sentimenduen aurkako inposizioa den, men egingo zaiela hori jartzeko eskakizunei.

José Luis jaunak adierazi du Legean jada ezarrita dagoela bandera jarri behar dela.

Josuk esan du jarriko dutela. Baina itxaroten ari dira ea nola egin.

- José Antonio jaunak (EAJ) adierazi du azokako zelaian abereek sortutako zabor ugari dagoela; San Isidro eguneko abereen erakusketa dela eta, uste du Udalak kendu behar duela, belarra segatu ahal izateko.
- Iratxe andreak (AB) galdetu du ea nola dagoen eskola-garraioaren kontua datorren urteari dagokionez.

Josu jaunak erantzun du IGERekin lantzen ari dela eta hitz egin behar duten Eusko Jaurlaritzako pertsonen kontaktua eman dietela. Antzeko arazoei buruz Zuiatik iritsitako informazioa ere jakinarazi zaie.

Álvarori eskatuko zaio errepideen arriskuari buruzko txosten bat egitea, Ertzaintzak jakinarazi bezala. Adierazi du Udalak IGERi eta Ikastolari lagunduko diela behar duten guztian. Gurasoen Elkarteari ere lagunduko zaio proposatzen eta egiten duten guztian.

Era berean, Hezkuntza Sailarekin bilera bat egiteko zain daudela azaldu du, gaia jorratzeko.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du Gasteizen EAJ-PNV partiduarekin horri buruzko bilera bat egin zutela eta bertan eskualdearen egoeraren berri eman zuten. Hartzen diren erabakien arabera, modu batean edo bestean jardungo dute.

- Iratxe andreak (AB) galdetu du ea Administrazio Batzarren argiteria publikoa mantentzeko zerbitzuen barruan sartzeko kableak tenkatzea.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun dio hori alde zuzeneko mantentzea dela. Udalak ordaintzen duen zerbitzuaren barruan matxurak konpontzea sartzeko dela. Alde zuzeneko mantentzea Administrazio Batzarrei egokitu beharko litzaieke.

Iratxe andreak dio argiteria publikoko kable bat lasaitzen denean ere Udalak hartu beharko lukeela bere gain, mantentze-lanen zerbitzuen barruan.

Josu jaunak (BILDU) azaldu du zerbitzuak kontratatzeko pleguak egiten direnean aztertuko dela zer sartzeko zerbitzuan eta zer ez.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du pleguak idazten diren arte ez dutela jakingo zer sartzen den mantentze-lanen barruan eta zer jotzen den alde zurreko mantentze-lantzat. Konponbide bat eman behar zaio zehaztugabetasun horri, eta zerbitzu argia eman.

Josu jaunak adierazi du pleguak idazten diren bitartean problema zehatza azter daitekeela eta ikusi zer egin.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita bian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.